

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Epe berriak 2020ko Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga eta 2019ko 3. hiruhilabeteko ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko

Alkatetzaren 2020ko maiatzaren 22ko 149. ebazpenaren bidez, honako erabaki hau hartu zen:

Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren bidez, koronabirusaren krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatu zen. Horren bidez, hainbat neurri ezarri ziren, besteak beste, zerga-arloan epeak aplikatzeari edo eteteari dagokionez.

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak 2/2020 Zerga Premiazko Dekretu Arauemailea onartu du, martxoaren 18ko Foru Gobernu Kontseiluarena, COVID-19ren eragin ekonomikoari erantzuteko premiazko tributu-neurriak onartzen dituena.

Zergadun guztiei jakinarazten zaie Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga eta 2019ko hirugarren hiruhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasaren erroldei buruz hartutako zehaztapen berriak.

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Indarrean egongo diren epe berriak honakoak izango direla:

- 2020ko Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epealdia: 2020ko ekainaren 15etik 2020ko abuztuaren 15era, biak barne. Helbideratutako erreziiboak 2020ko ekainaren 22an kobratuko dira.

- 2019ko hirugarren hiruhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko borondatezko epealdia: 2020ko ekainaren 15etik 2020ko abuztuaren 15era, biak barne. Helbideratutako erreziiboak uztailak 11n kobratuko dira.

Bigarrena: Kobraketa-data berria ALHAOn eta udal iragarki-taulan argitaratzea, herritarrek jakin dezaten.

Aramaio, 2020ko maiatzaren 25a

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE